

# ZERBITZUEN SEKTOREA: EUSKAL EKONOMI KRISIAREN IRTENBIDE?

**Mikel Zurbano Irizar**

**EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien  
Fakultateko Irakaslea**

Zerbitzuek mendebalde kapitalistan gora egin dute ez bairik gabe. Hau baieztean aldakuntza estrukturalaren arloan kokatzen gara. Baina zerbitzu-ihardueren hedapen kuantitatiboaz gain, sistema produktiboaren funtzionamendu eta antolakuntzaren logikaren eraldaketa bat gertatzen ari da. Guzti hau ekonomi krisiarekin areagotu egiten da. Testuinguru honetan, zein da Hego Euskal Herriak prozesu honetan duen jarrera? Nola eragiten du hemengo industri krisi gogorrek tertziarizazio-joeran? Esan ohi den bezala, iharduera hauek indartzearekin bat Euskal Herriko ekonomi pizkundea emango al da?

---

## Sarrera

---

Mendebaldean jazotako zerbitzu-ihardueraren hazkundera ez da ulertu behar industri produkzioa ordezkatzeko hasia den ihardueren hazkunde gisa, non hirugarren sektorearen ihardueren garapena ez bait litzateke ekonomi aldi edo etapa berria baizik. Hazkundearen zergatiari erantzuteko zerbitzu-ihardueren interpretazio sakon eta zehatza beharko genuke.

Baina definizioaren arazoa alde batera utzirik, zerbitzuen ihardueren ezaugarri batzu finkatzen saiatuko gara lehenik. Hauetaz zera esan daiteke:

-Iharduera heterogenoak dira, nahiz ikuspegi juridikotik –enpresen kopuru handia– nahiz merkatal ikuspegitik –merkatuen zatiak gutxi kontzentratuak daude–.

-Iharduera hauetan harreman pertsonala finkatzen da eskaintzen duenaren –zerbitzuen emaitza– eta bere bezeroaren artean. Kontaktua zuzen honek, kokapen esentzialki hiritarra ondorioztatzen duen salerosketa-ekonomia determinatzen du. Zerbitzuen jatorrian trukea edo salerosketa dago –gizakien mugikortasuna, kapitala, salgaiak, informazioa– eta komunikabideak modernizatzen direnean garatzen dira hauek.

Bestalde, zalantza handia dago oraindik ere Fisher, Clark eta Fourastié-ren emaitzen ondoren, beste askoren eritziek ezin izan bait dute

sektore hitza bera ere erabil ote daitekeen ala ez erabaki.

Sektore heterogeno honen azterketa eta analisi guztiek ezin izan dute argitu gaiaren inguruko hainbat hutsune. Adibidez hor dago sektore honen eta lurraldearen arteko erlazioaren ahulezia.

Halaber, ez dugu ahaztu behar iharduera hauek egungo ekonomi garapen kapitalistan duten funtzioa. Hau, nazioarteko lanaren banaketaren ondorioz definitzen da, eta honetan Mendebaldeko ekonomiek dute lehentasun osoa. Honela, zerbitzu-eta zenbait iharduera metatze kapitalistarako zutabe izango da.

Bidea jorratu nahian, sektore honen hutsuneak eta perspektibak zeintzu diren argitzeko saioa egingo da. Horretarako, garapen kapitalista aurreratuagoa ezagutzen duten eskualdeetara jo beharko dugu, hango esperientziak jaso, geureganatu eta bertako ekonomi bilakaera berezia kontutan harturik, geroan eta Euskal Herriko ekonomiaren dinamizazio-prozesuan, hirugarren sektoreak izan dezakeen rola aztertuko dugu.

---

### Hirugarren sektorearen bilakaera berriaren ulermenerako zenbait ohar

---

#### 1. Lanaren antolakuntza eta kualifikazioak.

Ikuspegi ekonomiko, juridiko eta sozial batez, lanaren antolakuntza eta kualifikazioari ekingo diogu, lehen burutapen gisa. Orohar, ekonomi

iharduerak tertziarizatzearekin batera enpleguen edukiak tertziarizatu egin dira, hala zerbitzuen enpresetan nola lehen eta bigarren sektoreetako enpresen barne-zerbitzuetan.

Aldakuntza ekonomiko inportanteenetariko bat gaur egun, lanaren antolakuntza eta kualifikazioaren arloan ematen ari da. Industri sektorean, taylorismoak produktibitatearen hazkundean eragiteko zuen ahalmena agortua dagoela dirudi. Lanaren antolakuntza malguagoa da eta enpleguek ezagupenak barneratzen dituzte gero eta gehiago. Honela, industrian ere, hirugarren sektorea enpleguen zatiak duen garrantzia handitzen ari da: administrazioa, ikerketa, komertzializazioa, kontzepzioa, mantenimendua.

Zerbitzuen sektorea besteen gainera dago enpleguari dagokionez Mendebaldeko Estatu kapitalistetan, eta haren hazkundera etengabea izan da azkenaldian. Bilakaera honek burutapen desberdinak azaltzen dizkigu produkzioaren tertziarizazioaz, enpleguen kualifikazioaz, hirugarrenak espazioen arteko lanaren zatiketan duen rolaz eta hirugarren sektoreko enpresetako lan-edukiaren bilakaeraz.

### **1.1. Industriaren tertziarizaziotik tertziarizazio orokorrera**

Badira industrian hirugarren sektoreko enpleguak hazi direla baiezteko zenbait mugimendu: zuzendaritzari aholkua eta ondoren administrazio-funtzioaren automatizazioa, ikerketaren abiaraztea, salkarien banaketa eta finantz funtzioen zabalkuntza<sup>1</sup>.

Frantziako Estatuan, adibidez, hirugarren sektorearen enpleguen zatia industri enpleguaren % 30 inguruan zegoen 1984 urtean, industri adarraren arabera zenbaki honetatik aldentzen delarik.

Tertziarizazio hau ez da ulertu behar enpresen burokratizazio hazkor baten emaitza gisa soilik. Azken finean, produkzio-prozesuen antolakuntz modu berri bat sortzen ari delako erakuslea dugu<sup>2</sup>.

Enpresa eraginkorren funtzionamendua aztertzen badugu, zera esan daiteke ondorio bezala, hauek ez direla jadanik lehengaiak azken produktu bihurtzeko leku soilak, baizik eta teknologi egiturak berriztatu eta konkurrentzi inguru konplexuak eramaten dituzten erakundeak<sup>3</sup>.

Une honetan, zerbitzuen barneratze ala kanporatzearen arazoa planteiatzen da<sup>4</sup>. Adibide bezala, Mendebaldeko Estatu kapitalista garatuenetan indarrean dagoen "enpresentzako merkatal zerbitzuak". Azpisektore honen hazkunde arinak zerbitzuen eskaintza konkurrentzialago eta eraginkorrago bihurtuko dela eta kanporatzeko joera nagusiagotuko dela erakusten du, batipat inguruko industri sarea enpresa txiki eta ertainez (ETE) nagusiki osatzen bada. ETEei dagokienez, hauek aholku-, hezketa- eta asistentzi funtzioak bete beharko dituzte, horretarako kanpotik eskaintako zerbitzuak eskuratu behar izango dituztelarik.

Enpresentzako zerbitzuen adarra hazi egin da azkenaldian eta gainera kualifikazio-maila handitu egin da.

Azken hau, enplegu garaiak gehitu eta koalifikazio gabeak gutxitu direlako gertatu da.

### **1.2. Lanaren birbanaketa eta koalifikazioak eragindako espazioen bereizketa**

Oraingoan ere, estatu kapitalista garatuenetako ereduaren bilakaerari jarraituz, ondoko joera hauek agertzen zaizkigu nabarmen.

Enplegu eta koalifikazioen aldakuntzek ihardueren banaketa berreraikitzen lagundu dute. Hemen, banaketa bikoitza somatzen da. Zerbitzu publikoak populazioaren banaketa espazialarekin bat datoz, enpresentzako zerbitzuek, aldiz, kontzentrazio-maila altuagoa dute.

Enplegu-koalifikazioen hierarkia eta hiri-sarearen antolakuntza hierarkikoa lotuta doaz dialektikoki, beraz koalifikazioen mailak hirien tamainuarekin aldatzeko joera du<sup>5</sup>.

### **1.3. Lanaren antolakuntza eta edukia**

Hirugarren sektorean egituratzen den lanaren antolakuntzak bide bikoitza har dezakeela dirudi<sup>6</sup>. Lehen bidearen hautua betebeharrak ahalik eta gehien deskonposatzen eta kodifikatzea lortzea litzateke. Honekin batera, betebeharraren eginkizun zehatza eta arina bilatuko luke lehen bideak. Edukiaren aldetik, industri taylorismoari hurbiltzen zaio.

Bigarren bideak, lanaren informatizazioari lotuta doakion betebeharraren lehen deskonposaketa baten ondoren,

lankidegoari uzten dio betebeharraren eginkizun ororen ardura. Enpleguen nolabaiteko polifuntzionaltasunaren eta koalifikazio zehatzak deuseztatzearen aldeko bilakaera du, beraz.

Betebeharren aldaketa honek enpresen funtzionamenduaren malgutasuna hobe dezake, nahiz zerbitzuetako enplegatuen mugikortasuna areagotzeko arriskua dagoen.

## **2. Enpresa txiki eta ertainak, enpresentzako zerbitzuak eta eskualde-garapena**

Azkenaldian, eskala handiko industri produkzio-sistemekin lotuta, konfidantza eza sortzen ari da.

Hauek, ekonomi krisiaren eragina zuzenean jasaten ari izan dira<sup>7</sup>. ETEak enplegu-sortzaile nagusiak lirateke eta hauek ez dira, halabeharrez, metropolietan kokatzen. Enpresa multinazionalak ere, deszentralizaturiko antolaketa-ereduak erabiltzen dituzte, teknologia eta lan-iharduera berriak sartzeko<sup>8</sup>.

Zenbait eskualdetako barne-garapen edo garapen endogenoan ETEek izan duten eta duten garrantzia ukazina da.

Bestalde, enpresentzako zerbitzuaren hazkundea gero eta indartsuago ematen ari da mendebaldeko ekonomietan. 1980 urtean enpresek eta administrazioak egindako zerbitzuen erosketak zerbitzuen erosketaren % 35,8 zen Alemanian, % 35 Estatu Batuetan, % 32 Frantzian eta % 27,5 Espainian<sup>9</sup>.

Enpresentzako zerbitzu-elkarte hauek garrantzi kualitatibo handia dute: ekonomi berrikuntzarako ongarri izanik, ekimen indibiduala dute pizgarri nagusi. Ezaugarri zehatz eta determinante batzu dituzte: mozkin/inbertsio erlazio handia eta kapital finko askorik ez. Bestalde, gero eta nabarmenago ari dira erortzen sektore honetako iharduerak merkatal erlaziotan. Honela, ekonomia hiritarraren zutabe nagusietako dugu hirugarren sektorea.

Orain arte enpresentzako zerbitzu-iharduera gehienak enpresa industrialak barnean izan baditu ere, orain enpresa industrialek kanpotik erosteko joera izango dute. Hots, barneratuak zeuden zenbait zerbitzu kanporatzen ari da enpresa. ETEa barneratuak izateko posibilitaterik ezean kanporatutako zerbitzuaz profitatu ahal da.

Honetaz gain, enpresentzako zerbitzuen sarearen finkapena lortzeak estrategikoa dirudi eskualde bateko ETEaren garapenerako<sup>10</sup>.

Leku zentralaren teoriak dioenaren aurka hiritar hierarkian maila apalagoan dagoen hiriak beste hiri garaiago batek baino enplegu gehiago eduki dezake zerbitzutan<sup>11</sup>. Edo gauza bera, zerbitzu-sektorearen garapena ez du garapen hiritarrak erabat determinatzen.

Bestalde, gero azpimarratuko dugunez, enpresentzako zerbitzuen enpresen kokapenerako estrategia aztertzen badugu, zerbitzuen eskaintza eta eskariaren arteko loturak eska zezakeen hurbiltasunaren premia

apurtu ahal da<sup>12</sup>. Apurketa honen alde, informazio eta komunikaziorako teknologia berriek joka dezaketen rola azpimarratu behar da.

Aurreko puntuak kontutan hartzen baditugu, enpresentzako zerbitzuen iharduerak erdigunetik kanpo garatzeko aukera dagoela behatzen da.

Gainera, zenbat eta enpresentzako zerbitzu gehiago daukan eskualde batek orduan eta joera handiagoa izango dute bertako ETEek kanporatutako zerbitzuak eskatzeko<sup>12</sup>.

Beraz, eskualde bateko garapen endogenoaz hitz egiterakoan beharrezko baldintza dugu enpresentzako zerbitzuen azpiegituraren garapena.

Eskualdearen ekonomi iharduera anizkoitza ziurtatu behar da, horretarako ondasun eta zerbitzu finalen produkzioarekiko "lotuta" doan hirugarren sektorearen finkapena ezinbestekoa litzateke<sup>13</sup>. Kategoria horren barruan enpresentzako zerbitzuak sartzen dira.

"Lotuta" doan hirugarren sektorearen leku-garapenean, eskualde-politikak badu zeresanik. Orain arteko eskualde-politikarentzat industria izan da ekonomi aurrerapena bultzatzeko oinarritzko sektorea. Industriak beste ekonomi sektoreekiko loturengatik azken hauen garapena ekarriko omen zuen. Baina gure azterketaren arabera, eskualde-politika hirugarren sektorearen, eta batipat enpresentzako zerbitzuen, leku-garapena ere kontutan hartu beharko du baldin eta leku-

-ekonomia suspertu nahi badu. Zerbitzuak oinarrizkoak dira industri enpresentzat eta zehazki ETEentzat, industri produkzioa, produktu eta prozedura berriak sortzeko ahalmenean eta zientzi ezagupenak eta berauen aplikazio teknikoen erabilpen hazkorrean oinarritzen bait da. Bestalde, enpresentzako zerbitzuen iharduerak, berezko indarra eduki dezake zenbait unetan eskualdeko ekonomi pizgarria izateko.

Honela, enpresentzako zerbitzuen erakarpena eta kokapenaren estrategiaren azterketa derrigorrezkotzat jo daiteke eskualde-politika koherente baten eraikuntzarako.

### **3. Enpresentzako zerbitzuen ihardueren kokapen-jokabidea**

Zerbitzu-enpresen kokapenerako ohizko hipotesi bat baliorik gabekoa dela ikusiko dugu lehenik. Hipotesi honek bi baldintza ditu, zerbitzuen produkzio-erari dagokiona bata, eta zerbitzuen kontsumo-erari dagokiona bestea. Ondasun/zerbitzu oposizioa jarraituz, ez dago zerbitzuen arloan produkzio-ekintza eta beronen erabilpenaren artean erabateko apurketarako aukerarik. Zerbitzuaren erabilpena, zerbitzua produzitua izan den une berean definitzen da.

Zerbitzua erabiltzen duenak zerbitzuaren produkzio-unean parte hartzen duenez, zerbitzu-enpresaren eta beronen bezeroaren artean hurbiltasuna emango litzateke. Honela uler daiteke zenbait hiri-metropolitan legokeen zerbitzuen

kontzentrazioa. Hipotesi hau bertan behera utzi dute azterketa berriek.

Zerbitzu bakoitzaren produkzioaren une desberdinak kontsideratzen baditugu –kontzepzioa, produkzioa, erabilpenerako irteera–, produktugilearen eta erabiltzailearen lekua eta rola diferenteak izan daitezke.

Zerbitzuen kontsumorako ihardueren artean diferentziarako joera dago, halaber.

Hurbiltasunaren hipotesia errefusatu azterketa enpiriko ugari egin izan da mendebaldeko estatuentzat. Guztietatik zera atera daiteke laburbilduz: enpresentzako zerbitzuen kontsumitzailearen eta produktugilearen arteko distantzia, komunikazio-faktore (moda, kontaktu-maiztasuna) eta komunikabide egokiak finkatutako baldintzen arabera dago<sup>14</sup>.

Informazio-teknologia berrien erabilpenak enpresentzako zerbitzuen antolakuntza produktiboan eta beronen hobari konparatiboetan eragina izango du.

Haren zabalkundearen izaera desberdina da teknika hauen elementu bereizgarria. Izan ere, kostuak direla medio eskualde guztiek eta hiri guztiek ez dituzte une berean ekipamendu-maila berdinak.

Azpiegituren eskaintza-ahalmenak lurraldearteko desorekak sortzen ditu, beraz. Teknika hauek erabiltzeko zerbitzu-enpresek duten botere desberdinak desorekak handitzen ditu.

Gaur egun, enpresek teknika hauek erabiltzen dituzte zerbitzuen produkzio-prozesuko aldiak edo faseak banatzeko eta lurraldeen arteko hobari konparatiboen arabera era diferentean kokatzeko<sup>15</sup>.

Hiri-metropolietan kokatuta dauden iharduerek dute teknika hauek lehenik sartzeko jarrera eta egoera horretaz profitatzeko.

Dena dela, hemen ere beste zalantza bat gaineratu behar zaie hiri-espazio hauei, pilaketa edo aglomerazio-desekonomien azalpenari dagokiona hain zuzen. Eta gainera, ondasunen garraio fisikoak irabazitako garrantziak, komunikazio-pasabideetatik zehar kokapen zehatzetarako joerak sortzen ditu, ez soilik hiri-metropolian.

Beraz, gerora begira informazio-teknika berriak eta zerbitzuak produzitzeko aldi edo faseen lurralde-banaketak zerbitzu-enpresak lurraldean kokatzeko joera berria eragin dezakete, antzinako zentralizazio-joeratik aldentuz.

---

## **Euskal Herriko zerbitzu-sektorearen ezaugarri orokorrak**

---

Atal honetan ez da Hego Euskal Herriko hirugarren sektoreko egituraren azterketa zabal eta sakona egiteko asmorik. Horretarako ikerlan sendagoa beharko litzateke. Baina, gure helburua ez da egituraren diagnostiko hutsa egitea, bestalde. Hirugarren sektoreak gure herrian dituen joera nagusiak finkatu eta Euskal Herriko ekonomia berpizteko dituen hutsuneak

betetzeko elementuak definitzen hasiko gara, lehen hurbiltasun baten ildoan.

Estatu kapitalista aurreratunetan<sup>16</sup> hirugarren sektoreak enplegu eta produkzioan duen hazkunde erlatiboa, eta baita absolutua ere, handitzen joan da. Espainiako estatuan, Hego Euskal Herria barne, industrializazioaren gehikuntza nabaria zerbitzuen hazkundearekin hirurogeigarreneko hamarkadan ematen den bitartean, mendebaldeko estatu gehientsuenak “desindustrializazio” eta “tertziarizazio” prozesu gogorrean aurkitzen dira jadanik. Hau dela eta, Britainia Handian eta Estatu Batuetan adibidez, hirugarren sektoreak aspaldian gaintu zuen industri enpleguak eta produkzioak ekonomia horietan zuten portzentai partaidetzaren lehentasuna<sup>17</sup>.

Gure herrian, aldiz, “desindustrializazio” prozesu hau hirurogeitahamargarreneko hamarkadaren bigarren zatian hasiko da, ekonomi krisiaren eraginarekin bat eginik; honela hirugarren sektorearen hazkunde absolutua ematen bada ere, hazkunde hau termino erlatibotara itzuliz industriaren beharakadarengatik areagotu egingo da.

### **3.1. Hirugarren sektorearen bilakaera eta egoera**

Bilboko Bankuko datuen arabera euskal ekonomiaren tertziarizazio-prozesua gertatu da zalantzarik gabe 1955 urtetik.

Horrela, 1955ean lau herrialdeetako ekonomiaren balio erantsi guztiaren % 33,7 bat zerbitzuen produkzioari bazegokion, 1985ean, berriz, guztiaren

% 50,3 izatera iritsi da, industriaren beraren garrantzia gaintuz. Honekin batera, enpleguaren aldean ere hazkunde nabaria eman da zerbitzu sektorean. Izan ere, 1955ean Euskal Herriko lau herrialde hauetako enplegu guztiaren % 31,3tik 1985ean % 47,22 izatera heldu bait da.

Hazkuntza-prozesu honetan bi aldi edo etapa agertzen zaizkigu nabarmen, ekonomi krisiak banatzen dituelarik. Lehena 1975 urterarte doana da, ordu-rarte zerbitzuen hazkundea industrian ematen den hazkundearekin batera garatzen da. 1985ean zerbitzu-sektoreak balio erantsi gordinaren ia % 50 eta enpleguen % 37,3 ordezkatuko du.

Bigarren etapan, 1975etik aurrera, krisiaren eraginez industriaren beheraldia jazotzen da. Desindustrializazio-prozesu honekin, hirugarren sektorearen hazkundeak jarraitu egiten du absolutuki produkzioaren aldean, nahiz enplegua maila konstantean mantendu. Honen emaitza, honako hau izango da: erlatiboki hirugarren sektorearen portzentai partaidetzaren hazkunde handia etapa honetan, BEG eta enplegu osoan duen partaidetza hamar puntutan igoko delarik Euskal Herrian 1985 urterarte.

Dena dela, eta konparatiboki, Hego Euskal Herriko hirugarren sektoreak 1985ean BEG eta enplegu osoaren %

1. Taula. Euskal Herriko herrialdeen balio erantsi gordinean (B.E.G.ean) enpleguan hirugarren sektoreko BEGaren eta enpleguaren portzentai partaidetzaren bilakaera.

	1975		1981		1985	
	% BEG	% Enplegua	% BEG	% Enplegua	% BEG	% Enplegua
Araba	34,1	29,1	42,6	36,0	47,2	45,6
Bizkaia	41,4	39,1	52,1	46,1	52,2	48,9
Gipuzkoa	42,0	36,5	46,3	42,4	47,6	46,7
Nafarroa	42,0	33,4	47,2	40,5	51,8	45,4
Hegoaldea	40,9	37,3	48,5	42,4	50,3	47,2
Katalunia	48,1	39,6	56,9	48,6	59,1	53,1
Madril	66,6	59,4	73,3	66,4	75,7	69,9
Estatua	51,1	40,3	59,5	47,6	61,5	52,5

Iturria : Bilboko Bankuaren "Renta Nacional de España" - urte desberdinak -.



50,3 eta % 47,2 izanik atzean geratzen da Estatuko batezbesteko partaidetzarekiko –% 61,5 eta % 52,5 hain zuzen–. Leizea areagotu egiten da konparaketa bera Katalunia eta Madril-ekiko zabaltzen badugu, izan ere Madrilekoa aparteko egoeratzat har daiteke, bertan hirugarrenak sortutako BEGa ekonomia guztiak sortutakoaren % 75,2 izatera iristen bait zen 1985ean eta zerbitzuetan ziharduen enpleguaren % 69,9. Kontutan hartu behar da halaber, zifra hauek aise gainditzen dituztela Europako zenbait euskaldekoean.

Beraz, nahiz eta hazkunde erlatibo handia ezagutu, zerbitzu-sektoreak ez du Hego Euskal Herriko ekonomian beste eskualdekoetan duen pisua. Honek, aurreko hamarkadaren erdialdean egun ikean dagoen industria oraindik ere euskal ekonomi egituraren eraikuntzaren ardatz izatearekin zerikusi handia du. Honela, “desindustrializazio” deituriko prozesua hondoa ukitzear dagoen unean, industriaren presentziak euskal egitura ekonomikoan garrantzi handikoa izaten jarraitzen du, beste edonon bezala.

Bestalde, 1975-1981 urtealdian ematen da hirugarrenaren hazkunderik adierazgarriena BEGari dagokionez, nahiz enpleguaren aldekoa gradua-lagoa izan denboraldi honetan zehar.

Herrialdeka, berriz, Araba izan da zalantzarik gabe, zerbitzuen hazkunderik garaiena ezagutu duena; bertan hirugarren sektoreak BEGean 1985ean zuen partaidetza lau herrialdeetatik txikiena zen arren. Arabako hirugarren sektoreko hazkunde arin horren

zergatiari erantzuteko hor dago Euskal Elkarte Autonomoko hiruburua izendatu ondoren bertan garatu den euskal instituzio-sarea.

### **3.2. Zerbitzuetako azpisektoreen garrantzi erlatiboa**

Azterketa hau burutzeko arazo metodologiko bat dugu lehenik, erabiltzen den iturri estatistikoak ez duela azpisektore-multzo bera kontsideratzen aukeratutako oinarri-urte bietan. Honela, denboraldi honetako bilakaeraren analisia egiterakoan zenbait azpisektore konparagaitzak suertatuko zaizkigu. Gainera, guk ondo mugatu nahi izan ditugun enpresentzako zerbitzuak, azpimultzo zabalago eta desberdinen barnean kokatzen dira bi urte hauetan.

#### **Araba**

Herrialde honetako bereizgarria arestian aipatutakoa da. Hots, sektore publikoaren garapen indartsua bideratu dela Gasteiz Euskal Herriko Elkarte Autonomoaren hiriburu bihurtu zenetik. Honela, zerbitzu publikoak Araban hirugarren sektoreko BEGari eransten diona % 34,9 da eta % 26,3 hirugarren sektoreko enpleguari dagokionez (4 taula), Estatuak azpisektore honetan adierazten duen batezbestekotik urrun aurkitzen delarik. Kontutan hartzekoa da, halaber, hauetatik zerbitzu ugari Elkarte Autonomo berean dauden beste bi herrialdeetara “esportatu” egiten duela Arabak.

Zerbitzu publikoaren azpisektorearen nagusitasun paregabe honen itzalean merkataritza eta, neurri

apalagoan, kreditu eta aseguruaren azpisektoreak daude. Azken azpisektore honen presentzia areagotu egin da 1977tik; orduan hirugarren sektorea BEGaren % 11,9 izatera iritsi bazen 1985ean % 14era heldu bait da, nahiz enpleguaren arloan bere partaidetza zertxobait murriztu (4 taula).

Saltzeko beste zerbitzuen partaidetza, non enpresentzako zerbitzuak sartzen bait dira, beste herrialde-ekiko txikia da, baita Estatuko batezbestekoarekiko ere.

### **Bizkaia**

Bizkaian zerbitzu publikoek 1985ean hirugarren sektoreak BEGari egindako aportazioa % 15,8ra baino ez zen iristen. Honek, Arabak zerbitzu publikoen arloan duen jokabide esportatzailea baieztan du. Bizkaiko hirugarren sektoreko balio erantsia gizentzen duten azpisektoreak, merkataritaz aparte, 1985ean hauek ziren: garraio eta komunikabideak, kredituak eta aseguruak, eta azkenik saltzeko beste zerbitzuak –hirugarren sektoreko BEGaren % 13,7, % 14,7 eta % 10,6 azpisektore bakoitzarekiko–. Lehen bi azpisektoreen garrantzia mende honetan zehar, Bizkaian izan duten garrantzia ezaguna da eta topiko bihurtu zaigu. Dena den, hauetan ere beherantzako joera nabaritzen da azken urteotan krisi industrialaren eta kapitalaren estrategia berrien –banku handien kasuan erabaki- eta eragiketa-zentruak Madrilen kokatu, esaterako– eraginez.

Besteak, hots saltzeko beste zerbitzuak, ez du Bizkaian Bartzelonak, eta are gutxiago Madrilek, duten

partaidetza ezagutzen hirugarren sektoreko produkzio osoan, baina Estatuko batezbestekotik gain dago halere.

Gipuzkoa eta batipat Arabak, azpisektore honetan erakusten duten eskasia, Bizkaia betetzeko joera du. Beraz, “beste zerbitzuen” esportatzailea izango litzateke Bizkaia honen arabera. Ildo honetan, Bilboko hiriak kontzentratzen ditu probintziako zerbitzu-mota hauetatik gehientsuenak eta hauek lirateke kanpoan saltzeko joera luketenak, hiri-sarearen inguruak zerbitzu hauen garapenerako duen garrantzia azpimarratuz<sup>18</sup>.

### **Gipuzkoa**

Hemen, merkataritzaren partaidetza hirugarren sektoreko BEGean % 17,9 da, eta zerbitzu publikoetan % 17,0. Bi hauek dira BEGaren portzentai partaidetzaren aldetik azpisektore nagusiak Gipuzkoan. Nabaria da, halaber, garraioak eta komunikabideak, eta akuraren azpisektoreek hirugarren sektoreko BEGean duten partaidetza.

### **Nafarroa**

Nafarroan, Araban gertatzen den antzera, zerbitzu publikoek presentzia handia dute hirugarren sektorearen azpibanaketan. Iruñean kokatutako Nafarroako Elkarte Autonomoaren sare instituzionalaren garapenarekin badu zerikusirik azpisektore horren garrantzia, nahiz Arabak duen joera esportatzailek ez duen. Merkataritzak hirugarren sektoreko BEGaren % 18,8 suposatzen du eta

saltzeko beste zerbitzuen partaidetza ere nabaria da hirugarren sektoreko BEGaren % 10,1 delarik, Estatuko batezbestetik hurbil kokatzen delarik. Honen arabera, Iruñean kokaturik enpresentzako zerbitzuen garapen autonomoa gerta zatekeen urte hauetan. Ikerketa sakonago batek, zerbitzu hauek Nafarroako eskualde desberdinetan duten fluxuen norabideak argitu beharko lituzke, Euskaditik kanpo egiten direnak barne.

### 3.3. Hirugarren sektoreko produktibitatea eta lan-antolaketa

Produktibitatearen neurkera enplegu bakoitzak lortzen duen balio erantsi gordinaren bidez egiten da. Azken hau pezeta korrontetan baloratzen denez ezin dugu urte biren arteko konparaketarik egin.

Banaka harturik, 1977an Hego Euskal Herriak industrian zuen produktibitatea 0,8 milioi pezetakoa izanik, zerbitzuetakoa 0,887 milioi pezetetara

heltzen zen. Hirugarren sektoreko produktibitatea industriakoa baino handixeagoa zen urte honetan, beraz; egoera bera errepikatzen zelarik herrialde bakoitza banaka hartuz gero.

Produktibitatea: Enplegu bakoitzak lortutako balio erantsi gordina (BEG) –milioi pezeta korrontetan–.

Aipagarria, nahiz industria nahiz zerbitzuetako produktibitateak Estatuko batezbestekoa baino garaia-goak izatea; euskal industriakoak aise gaitzen du Estatuko industri produktibitatea. Honela, bi sektore hauen produktibitateen arteko diferentzia handiagoa da Estatu osoa kontsideratzean.

Antzekoa esan daiteke 1985 urterentzat. Urte honetan, 1977an zegoen euskal industria eta zerbitzuetako produktibitateen arteko erlazioa baiezten da. Oraindik ere, bi euskal sektore hauena Estatuko enplegu bakoitzak lortutako balio erantsi gordina (BEG) –milioi pezeta korrontetan–.

2. Taula. Industri eta zerbitzu-sektoreetako produktibitatea 1985ean.

	1977		1985	
	Industria	Zerbitzua	Industria	Zerbitzua
Araba	0,833	0,901	3,012	2,884
Bizkaia	0,848	0,891	2,631	2,792
Gipuzkoa	0,791	0,909	2,879	2,805
Nafarroa	0,671	0,835	2,417	2,758
Hego Euskadi	0,800	0,887	2,703	2,799
Bartzelona	0,680	0,938	2,440	3,050
Madril	0,704	0,959	2,407	3,170
Estatua	0,678	0,834	2,427	2,757

Produktibitatea: Enplegu bakoitzak lortutako balio erantsi gordina (BEG) –milioi pezeta korrontetan–.

Iturria: Bilboko Bankuaren "Renta Nacional de España" -urte desberdinak-

3. Taula. Hirugarrengo azpisektoreen produktibitate-banaketa herrialdeka (1985).

Azpisektoreak	Errekuperazio/ Konponket.	Merkata- ritza.	Ostala- ritza	Garraio/ Komunikaz.	Kreditu/ Aseguroak.	Hezkuntza/ Osasuna (pr.)	Saltzeko beste zerb.	Etxeko zerbitzuak	Zerbitzu publikoak
Araba	3.687	2.337	2.115	3.271	5.077	2.712	3.054	722	2.176
Bizkaia	3.750	2.042	2.336	2.963	5.858	2.775	3.104	665	2.089
Gipuzkoa	3.654	2.219	2.743	3.033	5.608	2.637	2.978	669	1.978
Nafarroa	3.682	2.242	2.248	3.097	5.276	2.707	2.987	560	2.132
Bartzelona	3.946	2.274	2.855	3.366	5.895	3.177	3.414	745	2.166
Madrid	3.960	2.458	3.003	3.499	5.973	3.249	3.588	795	2.352
Estatua	3.674	2.116	2.497	3.139	5.527	2.888	3.149	652	2.101

4. Taula. Zerbitzuetako azpisektoreek sektorean eta herrialdeka duten enplegu eta BEGaren portzentai partaidetza (1985 eta 1977)

Sektoreak	Urtea: 1985										Urtea: 1977									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	1	2	3	4	5	6	11	12	13	
Araba	Enp.	4,8	21,4	6,0	8,1	7,9	--	3,6	7,7	5,1	34,9	26,1	7,5	13,3	8,2	--	10,8	17,1	16,7	
	BEG	6,1	17,3	4,4	9,2	14,0	9,5	3,4	8,2	--	26,3	20,9	5,1	11,8	11,9	12,5	10,8	14,4	12,3	
Bizkaia	Enp.	4,5	27,2	6,8	12,9	7,0	--	3,7	9,6	6,7	21,1	27,0	8,0	14,4	7,3	--	7,6	14,1	20,4	
	BEG	6,0	19,9	5,7	13,7	14,7	7,8	3,7	10,6	--	15,8	23,1	5,9	13,1	11,5	8,1	7,6	13,4	17,0	
Gipuzkoa	Enp.	4,2	22,6	6,5	12,4	6,3	--	5,5	8,9	8,8	24,2	24,2	10,7	13,0	5,9	--	7,5	13,9	24,5	
	BEG	5,4	17,9	6,4	13,4	12,6	10,0	5,1	9,5	--	17,0	19,7	8,3	11,0	9,1	11,9	7,3	12,7	19,6	
Nafarroa	Enp.	5,9	23,1	7,0	9,5	5,7	--	4,9	9,3	5,9	28,3	25,4	9,2	12,1	5,6	--	10,7	16,9	19,8	
	BEG	7,9	18,8	5,7	10,6	10,9	7,7	4,8	10,1	--	21,8	21,5	6,3	10,1	8,4	11,5	11,9	15,2	14,7	
Bartzelona	Enp.	5,3	29,0	6,6	10,3	6,9	--	4,5	10,1	6,5	19,9	29,5	8,0	12,5	7,1	--	5,6	12,6	24,4	
	BEG	6,9	21,6	6,2	11,4	13,4	8,3	4,7	11,3	--	14,1	24,0	5,9	11,1	10,9	10,3	5,5	11,8	22,5	
Madril	Enp.	3,5	20,4	7,2	12,4	7,9	--	3,5	11,7	7,2	25,5	22,1	9,7	12,8	8,3	--	11,3	13,2	22,3	
	BEG	4,4	15,8	6,8	13,7	15,0	6,3	3,6	13,3	--	18,9	18,8	7,2	11,7	12,0	6,7	12,4	12,5	18,4	
Estatua	Enp.	4,3	25,3	10,0	10,6	5,5	--	3,4	9,0	6,7	24,5	26,5	11,3	12,7	5,6	--	10,1	13,4	20,0	
	BEG	5,8	19,4	9,1	12,1	11,1	8,0	3,5	10,3	--	18,7	22,1	8,4	11,6	8,6	9,1	10,8	12,6	16,5	

Kodea: 1. Errekuperazioak eta birkonponketa  
 2. Merkataritza  
 3. Ostalaritza  
 4. Garraioak eta komunikabideak  
 5. Kreditu eta aseguroak  
 6. Akura  
 7. Hezkuntza eta osagintza (pribatuak)

8. Saltzeko beste zerbitzuak  
 9. Etxeko zerbitzuak  
 10. Zerbitzu publikoak  
 11. Administrazio publikoa eta defentsa  
 12. Hezkuntza, osasun eta giza-zerbitzuak  
 13. Zerbitzu desberdinak

Iurria: Bilboko Bankuaren "Renta Nacional de España" -urte desberdinak-.

Zerbitzutan eta industrian produktibitate-mailarik garaienak Euskal Herrian Arabak ditu, industriarentzat tarte nabarmenago gelditzen delarik.

Zerbitzu eta industriaren produktibitate-mailarik apalenak, aldiz, Nafarroak ezagutzen ditu, Estatuko maila berdintsuak lortzen dituelarik. Ondorioz, produktibitatearen hazkunderako hirugarren sektorearen zailtasun erlatibo handiagoaren argudio klasikoa deuseztatu egiten da hemen ere.

Bestalde, hirugarren sektoreko azpisektoreak aztergai hartzen baditugu, bertako ihardueren jokabide heterogenoa azpimarratu behar dugu. Produktibitate-tasarentzat 3. taulak argitzen digu baiezipen hau. Bertan, kreditu eta aseguruak dira produktibitate-tasarik garaiena azaltzen duten sailak, Bizkaian lortzen den maila aipagarria izanik. Dena den, Nafarroan nahiz Araban sail honetan ematen diren tasak Estatukoak baino apalagoak dira.

Sail honen ondoren, eta bien arteko produktibitate-tarte handia izanik, “errekuperazio eta konponketak” sailak azaltzen ditu tasarik altuenak, Euskal Herriko lau herrialdeetakoak Estatuko tasa baino zertxobait handiagoak dira kasu honetan. “Garraio eta komunikabideak” hurbiletik jarraitzen dio produktibitate-mailari dagokionez aurreko sailari, nahiz orain Euskal Herriko herrialdeetako tasak Estatukoa baino beheraxeago aurkitu. Gauza bera gertatzen da mailaketan atzetik datorren sailarentzat, hots “saltzeko

beste zerbitzuentzat”. Azkenik produktibitate-mailarik apalenak kontsumo-esparruan kokatzen diren zerbitzu-iharduerak ezagutzen dituzte.

Laburbilduz; produktibitatearekiko zerbitzu-sektoreko ihardueren bikoiztasuna ageri da: produkzio- eta banaketa-esparruan sailkatzen diren zerbitzu-iharduerak dituzte produktibitate-mailarik altuenak, alde batetik, eta bestetik, kontsumo-esparruan sar daitezkeen iharduerak apalenak. Banaketa bikoitz hau baiezipen delarik, honen ondorioa kontsumitzaileentzako zerbitzuen produktibitate apal honek zerbitzu hauen prezio erlatiboaren igoera dakarrela litzateke, berrikuntzarako pizgarri ezin hobea sortuz eta, beraz, ekonomia osoan eragina izanik<sup>19</sup>.

Produktibitatearen arteko desberdintasunez gain, hirugarren sektoreko ihardueren jokabide heterogenoa produkzioa razionalizatzeko ahalmen eta berrikuntza tekniko berrien erabilpen desberdinen bidez ere erakusten da.

Jabego-egituraren aldetik, zerbitzuetako ihardueretan lau enplegutatik hiru alokairudunen eskuetan daude (5 taula). Honek, alokairugabeen presentzia adierazgarria erakusten digu zerbitzu-iharduerentzat. Ihardueren heterogenotasuna berriro agertzen zaigu jabego-egitura aztertzean: lanbide liberal, autonomo, e.a. ugari aurki dezakegu sektore honetako iharduera pribatuetan batez ere; zerbitzu publikoetan, aldiz, alokairudunak dira enplegatutako pertsona guztiak.

5. Taula. Zerbitzuetako jabego-egitura eskualdeka: Alokairudunek hirugarre sektoreko enplegu osoan duten portzentai partaidetza (1977 eta 1985)

	1.977	1.985
Araba	75,5	78,9
Bizkaia	78,2	75,4
Gipuzkoa	76,2	75,3
Nafarroa	71,8	72,2
Hego Euskadi	76,3	75,1
Bartzelona	76,9	74,5
Madril	83,0	82,4
Estatua	75,8	75,0

6. Taula. Herrialde bakoitzak Hego Euskal Herriko hirugarren sektoreko pro zio eta enpleguan duen portzentai partaidetza (1977 eta 1985.)

	1977		1985	
	% Enplegua	% BEC	% Enplegua	% BEC
Araba	8,5	8,7	11,4	11,7
Bizkaia	46,6	46,8	43,1	43,0
Gipuzkoa	26,8	27,5	25,3	25,4
Nafarroa	17,8	16,8	20,0	19,7
Hego Euskad	100	100	100	100

Iturria: Bilboko Bankuaren "Renta Nacional de España" -urte desberdinak-.

#### 4. Hirugarren sektoreko ihardueren kokapen-jokabidea Euskal Herrian

Euskal Herriko ekonomiak hamar-kada honetan jasan duen beherakada, 7. taulako zifrek erakusten dute laburki. Nahiz industrian nahiz zerbitzu-sektorean Euskal Herriko enplegu eta produkzioak pisua galdu

du 1977-1985 urtealdian. Krisi ekonomikoak Euskal Herriko industri egitura gogor ukitu du eta honen eraginez euskal ekonomia osora hedatu da ukipen horren uhina. Hau dela eta, ikean dagoen eskualdetzat hartzen da Hego Euskadi egungo azterketa ekonomikoetan. Halere, Hegoalde osoan ez da bilakaera ekonomiko bera gertatzen ari.

7. Taula. Euskal Herriak estatuko industri eta hirugarren sektoreko produkzio eta enpleguan dagoen portzentai partaidetza (1977 eta 1985.)

1977				1985			
Zerbitzuak		Indust		Zerbitzuak		Indust	
% Enplegua	% BEG	% Enplegua	% BEG	% Enplegua	% BEG	% Enplegua	% BEG
6,6	7,0	10,6	12,1	6,1	6,2	10,0	11,1

Iturria: Bilboko Bankuaren "Renta Nacional de España" -urte desberdinak-

Antzinean industrializatutako herrialdeena litzateke aipatutako ekonomi beherakadaren prozesua, Bizkaia eta Gipuzkoarena hain zuzen. Beste bi herrialdeek bilakaera diferentea ezagutu dute. Industriaren garapena berandu gertatu da bertan eta honela, krisiaren aurrean malgutasun handiagoarekin jokatzeko aukera izan dute hala Arabako nola Nafarroako lurralde gehienek.

Eskematikoki azaldutako guzti hau errepikatu egiten da zerbitzu-sektoreari dagokionez. 1977-1985 urtealdian zerbitzu-ihardueren pisu espezifikoa zati bat barnealdeko bi herrialdeetara desplazatu da, kostaldeko bi herrialdeek enplegu eta produkzioaren hirutik bik adierazten duten arren.

Jokabide honen zergatiari erantzuteko argudiorik garrantzitsua arrazoi instituzionala dela errepikatu behar da. Urtealdi honetan Iruñean eta, batez ere, Gasteizen garatu den administrazio publikoaren hazkundeak hegoalderantz desplazatu du zerbait zerbitzu-ihardueren dinamikaren ardatza.

Dena dela, hirugarren sektorearen kokapen-estrategia aztertzean ere, ihardueren heterogenotasuna kontutan hartzekoa da. Kontsumo-esparruan dauden zerbitzuen lurralde-banaketa populazioaren sakabanaketari lotuta doakio hein handi batetan eta bigarren atalean aipatua izan den saltzaile eta eroslearen arteko hurbiltasuna beharrezkoago gertatzen da iharduera hauetan.

Baina hau ez da banaketarako eta produkziarako zerbitzuen egoera. Hauen kasuan, 2.3. sailean esan den bezala, hurbiltasunaren hastapena apurtzeko baldintzak ezartzen dira. Halere, eta Hego Euskal Herriko zerbitzu-iharduera hauen kokapenaren lehen ikuspegi batetik, hauek hiri handietan, hiriburuetan batipat, kokatzeko joera erakutsi dute. Esanguratsua da Euskadiko metropoli-inguru bakarrean, hots Bilboko eskualdean, enpresentzako zerbitzu desberdinen garapen garrantzitsua gertatzea; esportaziora zuzentzen delarik horietatik zati bat<sup>18</sup>. Adibide gisa 8 taulako datuak daude, hor banaketa eta produkzio-esparruan kokatzen diren hiru zerbitzu-



-azpisektoreetako herrialdearteko banaketa aztertzen da. Hiruetan Bizkaia da % 45era iristen den bakarra; ondoren Gipuzkoa BEG osoaren % 25aren inguruko partaidetzarekin eta Nafarroa bietan % 16 eta saltzeko beste zerbitzuetan % 20ko partaidetza duelarik. Arabaren egoera da nabarmenki atzeratuena zerbitzu hauen garapenari dagokionez.

areagotzen du berez hazkunde oso indartsua eduki ez duen hirugarren sektorearen ekonomi garrantzia.

b.- Hego Euskal Herriko hirugarren sektoreak hazkunde absolutua ezagutu badu ere, azken hamarkadako hazkundearen parte inportante bat Euskadiko bi Elkarte Autonomoen jaiotzak sortu duten zerbitzu publikoen eskaintza

8. Taula. Produkzio- eta banaketa-esparruko zerbitzu-ihardueren herrialdearteko banaketa. (1985)

(Hego Euskadi= % 100)

Azpisektorea	Kredituak eta Aseguruak % BEG	Saltzeko beste zerbitzuak % BEG	Garraioak eta Komunikabideak % BEG
Araba	12,3	9,6	8,6
Bizkaia	47,4	45,9	47,1
Gipuzkoa	24,0	24,3	27,3
Nafarroa	16,1	20,0	16,8
Hego Euskad	100	100	100

Iturria: Bilboko Bankuaren "Renta Nacional de España" -urte desberdinak-

**Emitza gisako apunteak**

a.- Euskadiko ekonomiak tertziarizatzeko joera ezagutu du azken urte hauetan eta 1985ean joera hau, oraindik ere, ez da eten. Zerbitzu-ihardueren hazkunde erlatiboaren funtsezko arrazoia, sektore honetatik kanpo bilatu behar dugu, bestalde. Industriak azkeneko hamarkada honetan gure herrian ezagutu duen beherakadak

berriari esker eman da. Zerbitzuetako beste ihardueren, nahiz kontsumo-, nahiz produkzio-banaketa esparrukoak izan, portzentai partaidetza ez da sektorearen barnean funtsean aldatu.

c.- Euskal industriak jasandako behaldiaren une gogorrenak pasa direla badirudi ere, bertako ekonomian garrantzi espezifiko handia mantentzen jarraitzen du.

Gerora begira, beraz, industriak ekonomian duen partaidetza erlatiboa jaitsiko bada ere, ez dio euskal ekonomi egituraren zutabe izaten jarraitzeari utziko.

d.- Honekin batera, euskal ekonomian garrantzi erlatiboa irabazi duen iharduera heterogenoko sektore bat itxuratzen ari da euskal ekonomian: zerbitzu-sektorea.

e.- Sektore honen barnean, ekonomian duen eraginarengatik, “enpresentzako zerbitzuak” nabarmentzen dira, hauek produkzio-sistema elikatzeke gai diren iharduerak osatzen dutelarik. Zerbitzu-iharduera hauek informatizazio eta telematikaren erabilpenarekin sistema produktiboaren berrantolaketa eragiten ari dira. Honek, lanaren antolakuntza, koalifikazioa, produktibitatea, teknologia, ekonomi ihardueren kokapena e.a. aldatzeko joera erakusten du.

f.- Honela, hirugarren sektorearen, eta produkzio- eta banaketa-esparrukoena bereziki, hazkunde eta garapena beharrezko baldintza dugu Euskal Herriko produkzio-sistema eraberritu eta dinamizatzeko. Ildo honetan, Euskal Herriko ekonomi oinarri izaten jarraituko duten industri enpresa txiki eta ertainei “lotutako” zerbitzu-ihardueren eskaintza sortzea eta garatzea da euskal ekonomiak gaur egun duen desfiorik handienetarikoa.

g.- Aipaturiko enpresentzako zerbitzuen produktibitateak indus-

triakoaren maila berdindu eta, maiz, gainditu egiten du. Gainera, ez dirudi industri enpresetako barne-zerbitzuek mendebaldeko beste estatuetan bezala kostu apalagoez eta eskala-ekonomiez profitatzeke duten kanporatzeko joera nabarmentki garatu denik oraindik Euskal Herrian. Bi faktore hauek direla eta, zenbait zerbitzu-enpresa malgu eta txikien finkapen eta kontsolidazio-prozesuaren aurrean egon gaitezke. Prozesu hau sendotu eta euskal ekonomiaren dinamizatzaile izan dadin f. sailean proposatutako bidea hartu beharko lukete zerbitzu-enpresa hauek.

h.- Enpresentzako zerbitzuak lau herrialdeetako hiriburuetan daude ezarrita batipat; horrek, hiri-sarearen garapena eta zerbitzu-mota hauen kokapen-joeraren arteko koerlazio indartsua erakusten du Hego Euskal Herrirako. Koerlazio honen baiezpena, Bilbo bezalako hiri-inguru indartsuak Hego Euskadiko zerbitzu hauetatik % 40ren bat biltzeak ziurtatzen du.

i.- Dena dela, informatizazio- eta telekomunikazio-teknologia berriek zerbitzu hauen saltzaile eta erosleen arteko eta saltzaileen beraien arteko hurbiltasun-joera konbentzionala apurtzeko baldintzak ezartzen dituzte. Bestalde, zerbitzuaren produkzio-prozesuko etapa diferentteak –kontzepzioa, produkzioa, banaketa– banatu eta eskala-ekonomiak direla medio kokapen diferentziatuak egiteko joera gogor agertzen da. Beraz, garai batean

industria izan bada gure herriko urbanizazioaren ardatza, gerora begira ihardueren tertziarizazioa eta bertako urbanizazioaren arteko loturak zeintzu diren argitu beharko dira.

j.- Azkenik, enpresentzako zerbitzuen garapena helburutzat duen eskualde-politika derrigorrezkotzat jotzen da. Eskualde-politika honen ardatza Euskal Herriak leku-botere eta ekonomi kontrolerako ahalmen handiagoak eskuratzeko bidean

datza. Honela soilik ekin ahal izango zaio euskal ekonomiaren berpizkunde-prozesuari, horretarako ezinbestekoa delarik bertako baldintza ekonomikoak mugatzen dituen perspektibekin eta populazioaren interes ekonomikoak eragiten dituen asmoekin helburuak eta bitartekoak definitzeko eztabaida zabal eta sakon bati ekitea, euskal ekonomiaren leku-dinamizazioa arrakastatsua eta guztion zeregina izatea nahi badugu.

---

## Oharrak

---

- (1) Valeyre, A., 1984: "La dynamique spatiale des emplois de services liés à la production industrielle". Cente d'Etudes de l'Emploi, Doc. Ronéoté.
- (2) Bonamy, J.; Bonnet, J.; Philippe, J.: "Mutations tertiaires et dynamiques spatiales". 1986. Mutations Économiques et Urbanisation. Documentation Française. 1, 2 eta 3 taluak.
- (3) Amendola, 1983: "Un changement de perspective dans l'analyse du processus d'innovation technologique". La Documentation Française.
- (4) Barcet, A.; Bonamy, J.; Mayere, A. 1983: Economie des services aux entreprises. Economie et Humanisme.
- (5) Saint-Julien, Th., 1984: "La dimension interurbaine du travail en France: la crise et l'évolution de la qualification du travail dans les villes". Université Paris I.
- (6) Boisson, B., 1984: "L'importance des choix d'organisation sur le contenu du travail". Conseil Economique et Social, Paris.
- (7) Stöhr, W. 1984: Crise économique et stratégies de développement régional". AYDALOT, P. (Arg.), Crise et espace, Economica, Paris.
- (8) Daniels, P. 1978: "Service sector office employment and regional imbalance in Britain". Tydschrift Voor Economische en Sociale Geografie. 69 zenbakia.

- (9) Fontaine, C. 1988: “Le développement des activités de service aux entreprises et dans les entreprises”. *Révue d'économie industrielle*. (Le dynamisme des services aux entreprises).
- (10) Bailly, A.S. 1985: “Le secteur des services: une chance pour le développement local”. FAST 74 zenbakia: zerbitzuak.
- (11) Cappellin, R. 1985: “The development of service activities in the Italian Urban System” FAST/zerbitzuak. 74 zenbakia.
- (12) Lazzeri, Y.; Leo, P.Y.; Monnoyer, M.C.; Philippe, J.: “Les prestataires de services, les PMI et le développement régional”. FAST/zerbitzuak 74 zenbakia.
- (13) Aydalot, P. 1984: “Le dynamisme économique a-t-il déserté la ville?” *Dossiers du Centre Economie Espace Environnement*. 39 zenbakia. Paris.
- (14) Espazio-elastikotasunaren kontzeptua adibide bezala har daiteke ildo honi jarraituz. Komunikatzaileen arteko distantziak komunikazio-maiztasunean duen eraginaren neurria da espazio-elastikotasuna.
- Tordoir, P.P. 1984: “The relations between technological innovation, information and agglomeration”. Amsterdam. Institute of Economic Geography, University of Amsterdam.
- (15) Monnoyer, M.C. 1985: “Evolution du marché des services aux entreprises et formulation de stratégies de développement pour les entreprises de services: implications régionales”. *Révue Économie Régionale et urbaine*. 5 zenbakia.
- (16) “Aurreratua” izatea ekonomi adierazle zehatz batzuren arabera definitzen da.
- (17) Esate baterako, 1965erako jadanik Estatu Batuetan eta Britainia Handian zerbitzuetako enplegua, ekonomia osoko enpleguaren % 53,7 eta % 56,3 zen.
- (18) Zurbano, M. 1988: “Diagnóstico y reconocimiento del sector servicios. Monografía de estructura económica”. Estudio para la ordenación del territorio de Uribe-Alto Nervión. EHUKo Ekonomia Aplikatuaren Departamendua.
- (19) Gershuny, J. Miles, I., 1982: “Service Employment Trends and Prospects” FAST/services. 4 zenbakia.